



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko uztailaren 20an

79 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (2. or.).
- Foru Lege proposamena, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituena. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Adierazpen politikoa, heldu den ekainaren 28an “Gay harrotasunaren nazioarteko eguna” ospatzekoa baita. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikertzaileei prestakuntza bekak eman beharrean lan kontratua egin diezaaien. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berariaz azter dezan ikasle etorkinen matrikulazioaren auzi. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LOGSEK jasotako goi mailako musika ikasketak arautu ditzan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arrotxapean hezkuntza eskaintza bermatzeko neurriak har ditzan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuteran, Ebro gainean, beste zubi bat egiteko azterlan bat presta dezan. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arrotxapean hezkuntza eskaintza bermatzeko neurriak har ditzan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak bazter utzia (8. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko 2000ko Kontu Orokorrei buruz aholku emateko txostena, Kontuen Ganbarak egina (9. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko uztailaren 3an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamen hau aintzat hartzea: "Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duena". Proposamen hori 2001eko maiatzaren 9ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duen

Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2001eko irailaren 19ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko uztailaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituen

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko uztailaren 3an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko ekainaren 29an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamen hau aintzat hartzea: "Foru Lege proposamena, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituen". Proposamen hori 2001eko maiatzaren 9ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehen. Gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskura-

tzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituen Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun baliouduneko epea irekiko da, 2001eko irailaren 19ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko uztailaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen politikoa, heldu den ekainaren 28an “Gay harrotasunaren nazioarteko eguna” ospatzekoa baita

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Eledunen Batzarrak, 2001eko ekainaren 25ean egindako bileran, ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

“Historikoki, homosexualtasuna edo bisexualtasuna gizarte- nahiz lege-ikuspuntutik gogor jazarritako eta baztertutako sexu-aukerak izan dira.

Gaur den egunean, oraindik ere antolamendu juridiko gehienetan legezko bazterkeria batzuk aurki daitezke bikote edo bizikidetasuneko unitate homosexuali bikote heterosexualak dauzkaten eskubideak izatea eragozten dietenak.

Halaber, eta agian aurrekoa bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa da, egiaztatzea pixkanaka, mantso bada ere, pertsona homosexualen eskubideak legez aitortzeko bidean aurrera pausoak eman direla; horren adibide egokia da berriki onetsi dugun Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko Foru Legea. Alabaina, oraindik ere sexua aukeratzeko askatasuna eta sexu-aukerari loturiko eskubideak baztertzen eta urratzen dituzten egoera eta jokaera sozial asko dago.

Gaurko munduan, asko dira oraindik ere ustezko “arau” sozialez besteko sexu-aukera baten alde egite hutsarengatik hiltzen, erasotzen eta baztertzen diren pertsonak. Eraso fisikoez gainera, bizitzaren edozein eremutan –hedabideak, gehiengoaren kultura, afektibotasunaren adierazpen publiko librea eta abar–, egiazta daiteke homosexualtasuna dela-eta bazterkeria handia dagoela eta aurre juzku sozial ugarik irauten duela; hori, noski, oso urrun dago horri buruzko

konsiderazio normalizatu eta behar bezala balioetsitako batetik.

Nafarroan, zenbait diskurtso erlijioso eta politikok oraindik ere homosexualtasuna aukera “normala edo naturaren aurkakoa” dela eta ugalketa helburu duen “familia eredu” heterosexualaren aurka egiten duela jotzen du; horien arabera, gainera, bikote homosexualak ezin dituzte haurrak adoptatu. Diskurtso horiek guztiak errealitatetik guztiz urrun daude eta kontrakoa lortzeko baizik ez dute balio, Nafarroako gizartean oraindik ere dauden eta jende askoren sexu-aukeraren bizipen normalizatua eragozten duten aurre juzku sozial ugariak kentzearen bidean.

Hori guztia dela eta, egiten duten sexu-aukera gorabehera pertsona guztien lege-eskubideak aitortzearen bidean aurrera egiteaz gainera, funtsezkoa da bizitzaren alde guzti-guztietan lan egitea aurre juzku eta bazterkeria sozial horiek gainditzeko.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuak bere gain hartzen du pertsonen sexu-aukerari eta haien eskubideei zor zaien errespetua zaintzeko konpromisoa. Halaber, konpromisoa hartzen du lege arlotik eta hezkuntzaren, kulturaren, hedabideen eta gizartearen arloetatik lan egiteko, gerta daitezkeen lege-bazterkeriak eta gizartearen balore eta jokaera homofobo eta lesbofoboak gainditzeko.

Azkenik, Parlamentu honek gonbitea egiten die herritar guztiei beren sexu-aukera adieraz dezaten, hala nahi badute.”

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikertzaileei prestakuntza bekak eman beharrean lan kontratua egin diezaien

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko ekainaren 20an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikertzaileei prestakuntza bekak eman beharrean lan kontratua egin diezaien".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikertzaileei prestakuntza bekak eman beharrean lan kontratua egin diezaien

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, ikerkuntzaren arloan, ikertzaileen prestakuntzarako doktoretza aurreko eta ondorengo beken ordean lan kontratuak ezar ditzan, beketan aurreikusiriko gehieneko iraupe-nekoak eta lan arloko egungo araudian ageri diren lan eta gizarte eskubide guztiekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren aurrekontuko kontusailak gehitu ditzan, egungo bekak lan kontratu bihurtzeak ekarriko dituen gizarte kontribuzioen ordainketaren ondorioz iker-tzaileen ordainsariak txikiagoak izan ez daitezten.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berari azter dezan ikasle etorkinen matrikulazioaren auzia

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko ekainaren 20an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berari azter dezan ikasle etorkinen matrikulazioaren auzia".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berari azter dezan ikasle etorkinen matrikulazioaren auzia

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere 2002ko

urtarrila baino lehen ikasle etorkinen matrikulazioa berari aztertzeko proposamen bat aurkez dezan, eskolatzeko baldintzak ikasle horien eskola-integrazioa errazteko egokienak direla bermatzeko.

2.- Horretarako, honako hausnarketa hauek, besteak beste, kontuan hartuko dira:

a) Ikasleen egoerari buruzko azterketa bat eginen da: ikasle-kopurua, zein ikastetxetan dauden eskolatuta eta horietan eskolatuta egotearen arrazoiak. Azterketa hori sakona eta xehekatua izanen da: adinak, anai-arrebak, ama-hizkuntza, jatorria...

b) "Lehentasunezko zonifikazioa" egingen da, espazioan hurbil dauden ikastetxe publikoen eta itunduen multzo bat zehaztuz, halako moldez non familiek euren proiektuen araberrako aukera egin ahal izanen baitute.

Funts publikoekin ordaindutako ikastetxe guztiek partekatuta daukate erantzukizuna eta hori

benetan horrela izan dadin zaindu behar da. Horrek posible eginen du gurasoek ikastetxea hautatzeko askatasuna egiazki gauzatu dezaten.

c) "Matrikulazio bulego" bat eratuko da, edo, halakorik ezean, informazio guztia bideratuko duen eta familien eta ikastetxeen arteko lokarri gisa arituko den erakunde bat. Diziplinarreko talde batek osatua izanen da, eta familiei orientabidea, informazioa eta aholkuak eman nahiz haien kezak eta igurikapenak helaraziko ditu.

d) Administrazioak proposaturiko matrikulazio-kanpainetan eskola-populazioaren errealitatea kontuan hartuko da, eta dokumentazio elebiduna eskainiko da, oraindik gaztelaniaz ez dakitenez informazioa jaso dezaten errazteko.

e) Matrikulazio berantiarra, ikasgelaratze malgua eta ikasgela-taldeei malgutasunez atxikitzea ahalbidetu behar dira.

f) Hezkuntza proiektuetan kulturarteko hezkuntza sustatzearen aldeko apustua egiten duten ikastetxeek giza eta gauza baliabideak izanen dituzte, etorkizunean gainerako ikastetxeentzat jardunbide onaren erreferentzia izan daitezen. Horrek ez du ezertan galaraziko ikastetxe guztiak etorkinen eskolazteaz arduratzeko beharra.

g) Kontuan izanik ikasle etorkin gehienek eskolaztea ikastetxe publikoetan izaten dela, bideak ezarri behar dira (gutxienez ehuneko 5en eta gehienek ehuneko 20ren arteko kuotak, Nafarroako Gizarte Bazterkeriari buruzko Plana betez) funts publikoekin ordaindutako ikastetxe guztiak gizarte-eskaera horri aurre egiteko erantzukizunean partaide izan daitezen.

Ikastetxe guztiak kultura aniztasunari dagokion ikusmoldea eurenganatu behar dute, ikasleen artean gutxiengoak dituztela nahiz ez dituztela.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LOGSEK jasotako goi mailako musika ikasketak arautu ditzan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko ekainaren 22an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LOGSEK jasotako goi mailako musika ikasketak arautu ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LOGSEK jasotako goi mailako musika ikasketak arautu ditzan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean musika-ikasketak garatzeko plan bat egin dezan, LOGSEko musika-ikasketen goi mailak Nafarroan izan beharreko garapena arautuko duena.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikasleek musikako goi maila beste kontserbatorio batzuetan ikasi ahal izatea berma dezan; horretarako, beste ikastetxe batzuekin akordioak lortu beharko dira, ikasleak musikako goi mailako titulazioan sartu ahal izatea errazteko. Halaber, beka-sistema baten bitartez, goi mailako ikasketak Foru Administrazioaren dirulaguntzarekin egin ahal izatea bermatuko da.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arrotxapean hezkuntza eskaintza bermatzeko neurriak har ditzan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko ekainaren 20an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arrotxapean hezkuntza eskaintza bermatzeko neurriak har ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arrotxapean hezkuntza eskaintza bermatzeko neurriak har ditzan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ave María ikastetxea handitzeko proiektuaren presako tramitazioari ekin diezaion, Arrotxapeko egungo eta etorkizuneko premiei erantzuteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Arrotxapean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzako ikastetxe publiko baten plangintza eta proiektua egiten has dadin, eta behar den zenbatekoa hezkuntzako 2002ko aurrekontu orokorretatik eman diezaion.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Cardenal Ilundain eskola publikoa 2001-2002 ikasturtean ixteko erabakia berrazter dezan eta irtenbideak bila ditzan ikastetxe horretan obrak egin ahal izateko ikasleak Ave María eskolako gela prefabrikatuetara eraman gabe.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuteran, Ebro gainean, beste zubi bat egiteko azterlan bat presta dezan

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuteran, Ebro gainean, beste zubi bat egiteko azterlan bat presta dezan".

Nafarroako Parlamentuko Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak, 2001eko ekainaren 19an eginiko

bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko apirilaren 20ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arrotxapean hezkuntza eskaintza bermatzeko neurriak har ditzan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arrotxapean hezkuntza eskaintza bermatzeko neurriak har ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko ekainaren 20an eginiko

bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko maiatzaren 22ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuko 2000ko Kontu Orokorrei buruz aholku emateko txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 25ean eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak Nafarroako Parlamentuko 2000ko Kontu Orokorrei buruz egindako aholku emateko txostena argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Parlamentuko 2000ko Kontu Orokorrei buruz aholku emateko txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburua eta norainokoa (9. or.).
- II. Iritzia (9. or.).
- III. Finantzen egoera orriak 2000-12-31n (10. or.).
 - 1. taula. 2000ko aurrekontuaren exekuzioa
 - 2. taula. Ekonomia- eta ondare-emaizta 2000n
 - 3. taula. 2000ko emaitzen aplikazioa
 - 4. taula. Egoeraren balantzea 2000-12-31n

I. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2001eko otsailaren 19an hartutako erabakia betez eta Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean xedatuarekin bat, Nafarroa-

ko Parlamentuaren 2000ko kontu orokorrei buruzko txostena –aholku ematekoa– egin dugu.

Egindako eskariari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuaren 2000ko kontu orokorrak arrazoizkoak ote diren aztertu dugu. Kontu orokorrak prestatzeko ardura Parlamentuarena izan da. Finantzen egoera orrien laburpena, berriz, txosten honen III. atalean jaso dugu.

Gure azterketa egitean, inguruabarrak kontuan harturik beharrezkoak iruditu zaizkigun auditedura-prozedurak eta -arauak aplikatu ditugu.

II. IRITZIA

Gure iritziz, kontu orokorrak behar bezala adierazten du 2000ko aurrekontuaren exekuzioa, Nafarroako Parlamentuaren 2000ko abenduaren 31ko ekonomia- eta ondare-egoera eta egun hartan bukatzen zen urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzak ere, aplikagarriak diren kontabilitate printzipio eta irizpideekin bat etorritik.

Parlamentuak 2000n zehar izan duen ekonomia- eta finantza-jarduera, berriz, legezko tasun-printzipioaren arabera izan da.

Txostena egiteko ardura Ignacio Cabeza del Salvador jaunarena izan da, eta hark proposatuta egin dut, indarrean dagoen legedian ezarritako tramite guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko ekainaren 19an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

III. FINANTZA-EGOERA 2000-12-31n**1. TAULA. 2000ko AURREKONTUA BURUTZEA.****Nafarroako Parlamentuko 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa
gastuen kapitulu ekonomikoka (pezetatan)**

Kapitulua	Hasierako aurrekontua	Bateratua	Aitorturiko betebeharrak	Gauzatua	Erresultak	Kreditua	Deuseztua
1. Langile gastuak	349.642.000	349.642.000	329.988.689	329.988.689	0	0	19.653.311
2. Ohiko ond. eta zerb. gast.	277.217.000	288.579.383	225.252.619	219.564.247	5.688.372	0	63.326.764
4. Transferentzia arruntak	296.450.000	298.828.000	297.753.901	297.753.901	0	0	1.074.099
6. Inbertsio errealak	1.264.000.000	2.019.020.399	165.140.308	159.112.999	6.027.309	1.208.000.000	645.880.091
8. Finantza-aktiboak	5.000.000	7.450.000	7.445.760	7.445.760	0	0	4.240
9. Finantza-pasiboak	20.500.000	668.769	175.028	175.028	0	0	493.741
Gastuak, guztira	2.212.809.000	2.964.188.551	1.025.756.305	1.014.040.624	11.715.681	1.208.000.000	730.432.246

**Nafarroako Parlamentuko 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa
dirusarreraren kapitulu ekonomikoka**

Kapitulua	Aurrekontua	Gehikuntzak/ gutxiagotzeak	Bateratua	Egindako dirusarrerak	Benetako kopurua	Sartua + / -
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	1.250.000	0	1.250.000	3.951.479	3.951.479	2.701.479
4. Transferentzia arruntak	920.000.000	0	920.000.000	920.000.000	920.000.000	0
5. Ondare dirusarrerak	2.059.000	1.972.924	4.031.924	49.706.050	49.706.050	45.674.126
7. Kapital transferentziak	1.287.000.000	0	1.287.000.000	965.250.000	965.250.000	(321.750.000)
8. Finantza-aktiboak	2.400.000	749.406.627	751.806.627	4.236.475	4.236.475	(747.570.152)
9. Finantza-pasiboak	100.000	0	100.000	57.050	57.050	(42.950)
Dirusarrerak, guztira	2.212.809.000	751.379.551	2.964.188.551	1.943.201.054	1.943.201.054	(1.020.987.497)

2. TAULA. 2000ko EKITALDIKO ONDARE ETA EKONOMI EMAITZA (pezetatan)

Gastuak	Urtea		Dirusarrerak	Urtea	
	1999	2000		1999	2000
Langileen eta parlamentarien gastuak	364.915.757	433.025.738	Argitalpenen salmenta	805.420	779.990
Tributuak	159.880	167.230	Korrituak	13.066.336	49.706.050
Kanpoko zerbitzuak	110.194.558	122.048.340	Aurrekontu itxietako etekinak aldatzea	2.046.665	-
Transferentzia arruntak	234.539.155	297.753.901	Transferentzia arruntak	746.001.000	920.000.000
			Kapital transferentziak	846.250.000	965.250.000
Aldeko emaitza partziala	906.952.249	1.085.912.320	Bestelako dirusarrerak	.592.178	3.171.489

2000ko ekitaldiko ondare eta ekonomi emaitzaren kontua (pezetatan)

Kontzeptua	Urtea		
	1999	2000	% Aldak. 00/99
1290 Ondare eta ekonomi emaitza	906.952.249	1.085.912.320	20
1000 Ondarea	(37.076.288)	(168.467.571)	-
2000ko inbertsio garbiak: (165.140.308) Pta.			
Aktibo eta pasibo finantz. aldaketa garbiak, 2000: 3.327.263) Pta.			
1290 Ekitaldiko emaitza	869.875.961	917.444.749	5

3. TAULA. 2000ko EKITALDIKO EMAITZA BANATZEA (pezetatan)

Kontzeptua	Urtea	
	1999	2000
NONDIK		
1290 Ekitaldiko emaitza doituak	869.875.961	917.444.749
1291 Funts atxikiak gehitzeke	-	749.406.627
NORA		
4760 Foru Ogasun Publiko hartzekoduna, kredituen itzulketa dela-eta	120.469.334	458.851.376
1291 Funts atxikiak gehitzeke	749.406.627	1.208.000.000

4. TAULA: EGOERA BALANTZEA 2000-12-31n (ekitaldiko emaitza aplikatu ondoren)

AKTIBOA	Ekitaldia		PASIBOA	Ekitaldia	
	1999	2000		1999	2000
a) Ibilgetua			a) Fondo berekiak		
I. Ibilgetu materiala	1.907.346.704	2.616.006.654	I. Ondarea	2.007.533.964	2.646.001.535
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	1.640.195.234	2.314.355.612	Ondarea	458.067.904	626.535.475
Makinak, instalaz. eta tresneria	51.850.393	60.815.794	Atxikitako ondarea	1.549.466.060	2.019.466.060
Garraio-elementuak	9.820.681	9.820.681			
Altzariak	96.115.759	104.791.192	II. Aurreko ekitaldietako emaitzak	749.649.124	1.208.242.497
Informazioa erabiltzeko ekipoak	33.688.333	38.712.254	Funts atxikiak gehitzeke	749.406.627	1.208.000.000
Bestelako ibilgetu materiala	75.676.304	87.511.121	Aplikatzeko dauden kontusailak	242.497	242.497
II. Ibilgetu ez materiala	95.033.928	21.514.286	b) Epe laburreko hartzekodunak		
Ikerketak, azterlanak eta proiektuak	1.689.291	1.689.291	I. Onetsitako beteb. engatik hartzek.	90.519.495	11.907.207
Aplikazio informatikoak	17.541.416	19.824.995	Ek. arrunt. onets. beteb. hartzekodunak	-	-
Aplikatzeko dagoen ibilgetua	75.803.221	-	Itxitako ek. onets. beteb. hartzekodunak	90.519.495	11.715.681
			Aplikatu gabeko kontusailak	-	191.526
III. Finantza-ibilgetua	3.126.646	7.381.634	II. Entitate publikoekiko zorrak	124.196.506	462.748.223
Epe luzeko maileguak	3.126.646	7.381.634	Foru Og. Publikoa, zerga kontzeptuak	-	-
			Foru Og. Publikoa, kred. itzultzea	120.469.334	458.851.376
b) Aktibo ibilkorra/Finantza-kontuak			Gizarte Segurantza hartzekoduna	3.727.172	3.896.847
I. Aldi baterako finantza-inbertsioak	1.964.007	918.304	III. Bestelako hartzekodunak	337.316	219.338
Epe laburreko maileguak	1.964.007	918.304	Epe laburrean jasotako fidantzak	337.316	219.338
II. Aurrekontuz kanpoko beste zordunak	757.956	259.024			
Osasun laguntzagatiko aur. eta mail.	757.956	259.024			
III. Diruzaintza	964.007.164	1.683.038.898			
Kutxa	404.967	241.578			
Finantza-erakundeak	963.383.435	1.681.921.760			
Finantza-erakundeak	218.762	875.560			
(a+b) AKTIBOA, GUZTIRA	2.972.236.405	4.329.118.800	(a+b) PASIBOA, GUZTIRA	2.972.236.405	4.329.118.800
ABALAK ETA BERMEAK			ABALAK ETA BERMEAK		
Jasotako abalak	73.640.318	73.407.276	Abalistak	73.640.318	73.407.276
Kontu bereziak, guztira	73.640.318	73.407.276	Kontu bereziak, guztira	73.640.318	73.407.276